



## Elkarri eskua emateko unea da

Erosi Tripontzia istorio sorta eta parte hartu 52.000 euroko zozketan!

Tripontzia erosita, **babesa eman diozu Gure Eskuri**, eta honekin batera, **kulturgintzari**, irabaziak erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamika indartzera ez ezik, **euskal kulturgintzako ekosistema artikulatuko duen proiektu batera** bideratuko baitira.

### Zozketaren ezaugarriak

- Txartel bakoitzaren prezioa: **5€ / zenbaki osoak 40€**
- **Zenbaki bakoitzak 8 serie ezberdin ditu:** Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Diaspora.
- **2 zenbaki saridun, 52.000 euro jokoan:**
  - **30.000 euroko** sari nagusi bat. Zenbakia eta seriea egokitzen zaion txartelari.
  - **2.000 euro** zenbaki bereko gainontzeko 7 serieen txartel bakoitzari.
  - **1.000 euro** bigarren zenbaki bateko serie bakoitzari.
- **Zozketa:** notario aurrean egingo da saldutako txartelen artean, **2021eko urtarrilaren 18an**. Berariaz sortutako programa informatiko bat erabiliko da zozketa egiteko.



### ‘Tripontzia burujabetzara bidean’ istorio sorta

**Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal Txakur Gorria** sortzaileen kolektiboko kideek idatzitako zortzi istorioak osatzen dute komiki digitala, eta **Unai Gaztelumendi** diseinatzaile eta marrazkilaria egin ditu ilustrazioak. Kodea sartu ostean eskuratu dezakezu istorio sorta. **Horretarako sakatu irudian.**

### Kulturgintzarekin elkarlana

**Burujabetza materialean tresna indartsua** izateko anbizioarekin jaio zen Tripontzia. Bide horretan, Tripontziarekin **jasotzen diren irabazien zati bat kulturgintzari lotutako proiektu batera** bideratuko dugu. Helburua litzateke euskal kultur ekosistema artikulatzea, epe motzera, sektoreak bizi duen larrialdi egoerari erantzuteko, eta epe ertain-luzera, ikuspegi estrategiko batekin urratsak egiteko.

**EROSTEKO SAKATU IRUDIAN →→→→**

